



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

HAUTESKUNDE BATZORDEA

Bilbon, 2021eko urtarrilaren 20an, Euskadiko Futbol Federakundeko Hauteskunde Batzordea bileran elkartuta,

AURREKARIAK

Euskal Futbol Federakundeak mezu elektronikoko bat jaso zuen 2021eko urtarrilaren 19an, Bizkaiko Futbol Federakundeak bidalia, mezuarekin batera idazki bat zuena, eta hitzez hitz hauxe zioena: *"2021eko urtarrilaren 11n, klubei eta batzarkideei jakinarazi zitzaien, eta gehieneko epea ezarri zen -hain zuzen, urtarrilaren 18a, 13:00- Bizkaiko lurraldeko federazioaren estamentuetako hautagaitzak aurkezteko, Euskadiko Futbol Federakundeko kideak aukeratzeko. Jakinarazpen hori Bizkaiko Federakundearen web orrian argitaratu zen, eta posta elektronikoz bidali zitzaien batzarkideei.*

Data hori finkatzeko arrazoia hauxe besterik ez da: Ezohiko Batzar Orokorra egiteko epea izatea, egin behar izanez gero...". Ondoren, zenbait galdera egin zioten Hauteskunde Batzordeari, eta hauxe adierazi zuten: "Kontua da futboleko kandidatura gehiago aurkeztu direla, 11, bete beharreko postuetan, eta areto-futbolean, eta 13:11n hautagaitza bat jaso dela, hau da, adierazitako epetik kanpo. Hala ere, Hauteskunde Batzordeak onartuz gero, bete beharreko postuak baino hautagai gehiago izango lirateke...."

Félix Fernández Elejalde entrenatzailearen kandidatura jaso da. Ez da lurraldeko federazio honetako batzarkidea eta ez da ageri honekin batera doan erroldan.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Bizkaiko Futbol Federakundearen estatutuek, 30. artikuluan, ezartzen dute Ohiko edo Ezohiko Batzar Orokorren iragarkia gutxienez 15 egun lehenago egingo dela. Batzarkide guztiei egindako komunikazioan jakinarazten zaie, Ezohiko Batzar Orokorra eginez gero, urtarrilaren 25ean izan beharko lukeela, baldintza hori bete ahal izateko. Egia da lekua eta ordua zehaztu gabe daudela, zenbait faktoreren mende gaudelako, hala nola Hauteskunde Batzordearen oniritzia, batzarkide-kopurua, lokalaren edukiera, hainbat udalerritan dauden mugikortasun-murrizketak, etab."

Idazkiaren amaieran, honela zioten: "Epeak laburrak direnez, eskatzen dugu Hauteskunde Batzordeak adieraztea zein diren egin beharreko urratsak."

Eskatutakoari erantzun aurretik, lehenik eta behin esan behar dugu **lurralde-federazio bakoitzeko presidenteari** dagokiola bere batzarkideei dei egitea Euskadiko Futbol Federakundearen batzarrean izango dituen ordezkariak aukeratzeko, 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 57.2 artikuluan jasotzen den moduan.

Bigarrenik, Hauteskunde Batzordeak Bizkaiko Lurralde Historikoko Batzarreko deialdiaren berri izan du ebazpen hau eragin duen idazkia aurkeztean, eta, beraz, 2012ko otsailaren 19ko Aginduak 36.1. artikuluan xedatutakoa hautsi da. Horren bidez, Euskal Federakundeari nahitaez jakinarazi behar zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Batzarrerako estamentuetarako ordezkariak hautatzeko deialdia.

Arestian aipatutakoa ezarri ondoren, adierazi behar dugu lurraldeko batzarra tokirik eta ordurik gabe egiteko deialdia guztiz irregularra dela eta Bizkaiko lurraldeko federazioak berehala zuzendu behar duela.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Ez dute aitzakia gisa balio udalerrien arteko mugikortasun-murrizketek -horiek kasuan kasuko erakundeak batzarkideentzako ziurtagiriak luzatuz konponduko baitira-, ez eta edukiera-arazoek ere, batzarkideak estamentuen arabera bozketa-ekitaldira mailaka joanda konpon baitaitezke.

Beraz, Bizkaiko lurraldeko federazioak bere **batzarkideak deitu beharko ditu hilaren 25ean, bozketaren ordua eta tokia adierazita.**

Planteatutako gainerako gaiei dagokienez, adierazi behar da estamentu batean bete beharreko postuak baino hautagai gehiago badaude, horiek batzarrean dagokion bozketa eginez ebatziko direla, horretarako egiten baita deialdia.

Club Stilo K.K.ren epez kanpoko hautagaitzaren aurkezpenari dagokionez, Bizkaiko lurralde-federazioak berak argitu beharko du epez kanpo aurkeztu den; hala ere, klub horrek lurraldeko federazio horren erabakiaren aurka jo ahal izango du Hauteskunde Batzorde honen aurrean, hari baitagokio hauteskunde-egintza guztien legezotasunaren kontrola, 2012ko otsailaren 19ko Aginduan adierazitakoaren arabera.

Félix Fernández Elejalde entrenatzailearen hautagaitzari dagokionez, lehen esan dugun bezala, Bizkaiko Futbol Federakundeak erabaki behar du Euskadiko Futbol Federakundearen batzarrerako hautagai izateko baldintzak betetzen dituen. Hala ere, lurralde-federazio horri gogorarazi behar diogu Euskadiko Futbol Federakundearen hauteskunde-erregelamenduaren 31. artikulua eta 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 57.3 artikulua hau ezartzen dutela argi eta garbi: *“Lurralde-federazioetan hautatutako Euskadiko Federazioaren Batzar Nagusiko kideek **bertako kide izan beharko dute**”.*



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Aipatutako egitateak, legezko aginduak eta oro har aplikatu beharreko gainerakoak aztertuta

ERABAKI DU

1.- Ebazpen honen berri ematea Bizkaiko Futbol Federakundeari, indarrean dagoen legedian ezarritakoa bete dezan.

Ebazpen honen aurka, errekurtsioa aurkez daiteke Kirol Justiziaren Euskal Batzordean, zazpi egun balioduneko epean, Euskadiko Futbol Federakundearen hauteskunde araudiaren 11. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera.

Ebazpen hau Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako futbol-federazioei jakinarazi behar zaie, eta haien egoitzetan jendaurrean erakutsi behar da.

Presidentea

Batzordekidea

Idazkaria